

09.

KOMUNIKAZIORAKO PLANA

HASIERAKO KOMUNIKAZIOA

Behin emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunerako IV Plana onartuta dagoela, barne, zein, kanpo komunikazioa burutuko da:

Udaletxeko pertsonal osoari:

- ✓ Langile guztiei informazio ohar bat luzatuko zaie, Planaren ezaugarri nagusien laburpenarekin eta dokumentu osoa lortzeko estekarekin.

Biztanleriari:

- ✓ Komunikazio gabinetearen laguntzarekin komunikazio kanpainak.

IV Plana aurkezteko helburuarekin Berdintasun Batzordea deituko da.

KOMUNIKAZIOA IV PLANA INDARREAN DAGOEN BITARTEAN

Barne komunikazioa:

- ✓ Urtero Planaren baitan Udal sail ezberdinei burututako ekintzen inguruko informazio oharra helaraziko zaie.

Kanpo komunikazioa:

- ✓ Udaleko berdintasun Web orrialdea era jarraituan eguneratuko da.
- ✓ Urtero publiko egingo da eta komunikabideei igorriko zaie, ezarritako neurrien gaineko informazioa.

IV PLANAREN BUKAERAKO KOMUNIKAZIOA

- ✓ Berdintasunerako IV Planaren inplementazio bukatzerakoan, lortutako emaitzen ebaluazioaren inguruan informazio zabalduko da kanpo, zein, barne mailan.